

Asisko gutuna

2014ko Apirila. 2. printzipioa. Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

66. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Lantzen ari garen espiritualtasunaren bigarren printzipioak egian bizitzen lagundu nahi digu, geure buruak ez engainatzen, geure errealitatea bizitzen. Eta eskerturik bizi nahi dugu, garenaz gozatuz. Izan ere, Jainkoaren sorkari gara, berak sortuak, zainduak eta bere izate osoaz maitatuak. Eta hainbat eman zaigu!

Gogoetarako gaia

Bizitza eskertu

Apaltasuna esker onarekin lotua dabil. Bizitza eta gauzak bizi daitezke konkista modura, lortu beharreko helburu gisara, errealitatea gainditu beharrez. Horrela begiratzen da askotan bizitza gizarte harrapari honetan. Begiratzeko eta sentitzeko modu horrek denean jabegoa bilatzera narama: daukadan adina naiz, besterik gabe. Dena lehiari lotua dago, abantaila emango diguten trebeziak lortzeari, borroka den bizitzari.

Egia esan, bizitzak ahalegina eta saiatzea eskatzen du. Baina horrez gain joan naiteke aurkituz, bizitzako gauzarik inportanteenak, bihotza betetzen eta dena koloretzen dutenak, ez direla ekinaren ekinez lortzen, eskuak eta bihotza zabalduz baizik. Funtsean opari dira. Jar dezaket asko neure aldetik: denbora, jarduna, lana, pazientzia ... Baina gizatasun gehien eman didaten errealitateak (guraso eta senideak, maitasun-harremanak, barkatua izana, eskaini didaten eskuzabaltasuna, nirekin izan duten pazientzia ...) ez dira nire ahaleginen emaitza. Eta gehiago

sakonduz, neure ahaleginez lortu dudana hura ere geldi zekidakeen lortu gabe, eta hura ere opari da: osatzen dudana familia, lan egin ahal izatea, nire trebeziak, nire gaitasunak ...

Esker ona da, zentzuz biziarazten nauten sentimendu oinarrizkoetako bat. Ez heziera onaren fruitu delako (-Haurra, zer esaten da? -Eskerrik asko), honako hau kontzientean edukitzearena baizik: dena dohain dela, eskerrak emateko aukera, baita landu eta borrokatu behar izan dudana hura ere. Eta neure bizitzan Jainkoaren presentziara zabaldua banago, dena Haren borondate maitetsuaren opari gisa bizitzeko zortea izango dut. Eta esker onaren zentzuak beteko du nire bizitza osoa.

Apaltasunak lagundu egingo dit pozik eskertua bizitzen Jainkoarekin, eskaintzen dizkidan on guztiengatik, eta modua emango dit kantatzeko “eskerrak hainbeste eman didan bizitzari” edo “eskerrak dena eman didan Jainkoari”.

Ebanjelioko pasartea: Lk 17, 11-19

Jerusalemera bidean, Samarian eta Galilean barrena zihoan Jesus. Herri batean sartzerakoan, hamar legendun atera zitzaizkion bidera. Urruti gelditurik, deiadarka esan zioten: “Jesus, Maisu, erruki zakizkigu”. Jesusek, ikustean, esan zien: “Joan eta azaldu apaizengana”. Bidean zihoazela, garbi gelditu ziren. Haietako bat, sendatua zegoela oharturik, Jainkoa deiadarka goratuz itzuli eta Jesusen oinetara ahuspez erori zen, eskerrak emanez; samariarra zen bera. Jesusek esan zuen: “Ez ote dira hamarrak garbi gelditu? Non dira beste bederatziak? Ez al da izan atzerritar hau besterik Jainkoa goratzera etortzeko?» Gero, esan zion: “Jaiki eta zoaz; zeure sinesmenak salbatu zaitu”.

Frantziskotar espiritualtasuna

Jainko ahalguztidun, txit santu, goi-goiko eta gorena, Aita santu eta zuzena, zeru-lurren errege Jauna, eskerrak ematen dizkizugu zeu zarena zarelako, eskerrak zeure borondate santuaz eta zeure Seme bakar-raren bitartez, Espiritu Santuarekin batera, espirituzko eta gorputzezko gauza guztiak egin zenituelako, eta gu, zeure antzeko eta irudiko eginik, paradisuari ezarri gintuzulako. Baina gu erori egin ginen geure erruz. Eta eskerrak ematen dizkizugu, zeure Semearen bitartez egin gintuzun bezalaxe, bera, egiazko Jainko eta egiazko gizona, izan zenigun maitasun santuaz, Andre Maria beti Birjina ospetsu eta txit do-hatsuagandik jaiotzeko zenuelako, eta gu, gatibuok, haren gurutze eta odol eta heriotzaz berrerosi nahi izan gaituzulako (1 Er 23,1-4).

Ikustekoa da zenbat aldiz eskertzen duen Frantziskok Jainkoa bere idazkietan. Zenbat otoitz dituen esker onezkoak eta gorespenezkoak. Zenbat aldiz gonbidatzen duen jendea eskerrak ematera eta Jauna be-deinkatzera. Frantziskok etengabe ematen ditu eskerrak. Bihotz eta begi harrituz eta eskertuz begiratzen du beti. Badaki pertsonak eta gertaerak, Jainkoaren ontasun eta maitasunaren historiaren parte bezala kontenplatu. Eskerrak ematea Frantziskorentzat, Maitearengan lasaiki atsedean hartzea da: "Eskerrak ematen dizkizugu zarena zarelako".

Otoitza

Maite gaituzulako, Zuk pobre horrek.
Sendatzen gaituzulako, Zuk maitez zauritu horrek.
Argi egiten diguzulako, gordean egonik ere,
errukiak mundua pizten duenean.
Gidatzen gaituzulako, beti aurrerantz,
beti esperoan,
adoratzen zaitut.

Atsekabe larritik begiratzen diguzulako
eta inozentziatik irribarre egiten.
Erregu egiten diguzulako
zure seme kolpatuen larritasunetik,
besarkatzen gaituzulako ematen dugun besarkadan
eta partekatzen dugun bizitzan,
adoratzen zaitut.

Nik neuri baino gehiago barkatzen didazulako,
deitzen nauzulako, oihi eta murmurioz,
eta bidaltzen nauzulako, sekula ez bakarrik.
Konfiantza duzulako niregan,
nire ahulezia ezagutzen duzun horrek,
adoratzen zaitut.

Gainezka betetzen nauzulako
eta kezka zirikatzen.
Begiak zabaltzen dizkidazulako
eta nire ostertzean ebanjelioa jartzen.
Zu bertan sartzen zarenean, nire bizitza
betea delako,
adoratzen zaitut.

Jose M^a Rodriguez Olaiola

Gutuneko azken hitzak

"Eskerrak, Jauna, sortu nauzulako". (Asisko Santa Klara)

2014ko apirileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate apirileko erreferentzia guztiak:

1 Jn 5,1-3,5-16	7 Jn 8, 1-11	13 Mt 27,11-54	19 Mt 28,1-10	25 Jn 21, 1-14
2 Jn 5,17-30	8 Jn 8, 21-30	14 Jn 12,1-11	20 Jn 20, 1-9	26 Mc 16, 9-15
3.Jn 5, 31-47	9 Jn 8, 31-42	15 Jn 13,21-33,36-38	21 Mt 28,8-15	27 Jn 20, 19-31
4 Jn 7,1-2.10.25-30	10 Jn 8,51-59	16 Mt 26, 14-25	22 Jn 20,11-18	28 Jn 3, 1-8
5 Jn 7, 40-53	11 Jn 10,31-42	17 Jn 13, 1-15	23 Lc 24,13-35	29 Mt 11,25-30
6 Jn 11,3-7.20-27.34-45	12 Jn 11,45-57	18 Jn 18,1-19,42	24 Lc 24,35-48	30 Jn 3, 16-21

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org




Asis Sarea

646 21 48 96

Apirileko otoitzaldia 24an izango da.